

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0013</p>	<p>Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga (TMIZ): ezintasuna duten pertsonentzako salbuespen eskaria</p> <p>Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica (IVTM): solicitud de exención para personas con discapacidad</p>
---	----------------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Ezintasuna duten pertsonen kasuan ibilgailuen zergan salbuespena eskatzeko.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita daude ezindunen izenean matrikulatuta dauden eta horien erabilera eskusiborako diren ibilgailuak. Salbuespena ezin izango du ibilgailu batek baino gehiagok izanaldi berean.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesaturako edozeinek edo bere lege ordezkariak, baldintza hauek betetzen baditu:

- Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretu bitartez onetsitako Ibilgailuen Arautegi Orokorren II. eranskinaren A hizkian aipatzen diren mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak, ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatutakoak.
- Halaber, salbuetsita egongo dira, ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta dauden eta euren erabilera eskusiborako diren 14 zaldi fiskal baino gutxiagoko ibilgailuak. Salbuespen hori abaguneak jarraitzen duen bitartean aplikatuko da, ezintasuna duten pertsonen gidatutako ibilgailuek eta pertsona horiek garraiatzeko erabiltzen direnei dagokienez.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

- a) %33 eta %65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbalotasun-gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.
- b) %65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

¿QUÉ ES? ¿PARA QUÉ?

Para solicitar la exención en el impuesto de vehículos en los casos de personas discapacitadas.

Están exentos de pago del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica los vehículos matriculados a nombre de personas discapacitadas para su uso exclusivo, no pudiendo disfrutar de la exención por más de un vehículo simultáneamente.

¿QUIÉN LO PUEDE SOLICITAR?

Toda persona interesada o su representante legal que cumpla los siguientes requisitos:

- Vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la letra A del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.
- Asimismo, están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

- a) Aquellas personas que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33% e inferior al 65% que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de discapacidad o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

b) Aquellas personas con un grado de discapacidad igual o superior al 65%.

A las personas incluidas en las letras a') y b') anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo III del mencionado Real Decreto 1971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)
- [E021 Zinpeko deklarazioa](#)
- Interesatutako pertsonaren edo ordezkariaren NAN edo IFK edo horiek ordezkaten dituen beste nortasun agiri bat.
- Izapidea egiten edo sinatzen duen pertsona interesatua ez bada, ordezkaturako pertsonaren NAN aurkeztu beharko da.
- Foru Aldundiak emandako ziurtagiria, ezintasun maila adierazten duena.
- Salbuetsi beharreko ibilgailuaren zirkulazio baimena eta ezaugarri teknikoak.
- Zinpeko aitorpena.

DOCUMENTACIÓN A APORTAR

- [E007 Instancia general](#)
- [E021 Declaración jurada](#)
- DNI o CIF de la persona interesada o representante u otro documento de identidad que lo sustituya.
- En caso de realizar el trámite o firmar persona distinta a la interesada se deberá presentar DNI de la persona representada.
- Certificado expedido por la Diputación Foral, en el que se reconoce el grado de discapacidad.
- Permiso de circulación y características técnicas del vehículo a exencionar.
- Declaración jurada.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- haz@amorebieta.eus

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

¿DÓNDE SE SOLICITA?

Presencial:

- [Ayuntamiento](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Por email:

- haz@amorebieta.eus

Telemáticamente:

- [Iniciar la tramitación online](#)

Por correo ordinario:

- Correo certificado
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

¿CUÁNTO CUESTA?

El coste de la gestión se asume por el Ayuntamiento.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1
Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 6 hilabete
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

PLAZO DEL PROCEDIMIENTO

Plazo estimado: 1 semana
Procedimiento habitual. Plazo limite legal: 6 meses
Carácter del silencio administrativo: Desestimatorio

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala](#)
- [Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkairako Tributu Foru Araua](#)
- [Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 30eko 7/1989 Foru Araua](#)

NORMATIVA APLICABLE

- [Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre vehiculos de tracción mecánica](#) -
- [Norma Foral General Tributaria 2/2005, de 10 de marzo para Bizkaia](#) -
- [Norma Foral 7/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica](#) -

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Dokumentazioaren administrazio azterketa, HAZak egingo du.

- Espedientearen irekiera, HAZak egingo du.

Dagokion sailera bidali: Errentak eta diru-bilketa

- Espedientea teknikaren administrazioaren ikuspegitik aztertu

- Instantzia teknikoari zuzentzeko eskatu

Ebazpena

Jakinarazpena

Erroldan sartu

PROCEDIMIENTO A SEGUIR DESPUÉS DE LA SOLICITUD

Revisión administrativa de documentación por el SAC.

- Apertura de expediente por el SAC.

Remisión al área correspondiente: Rentas y Recaudación.

- Revisión técnico-administrativa del expediente

- Requerimiento subsanación a instancia técnica

Resolución

Notificación

Inclusión padrón

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

¿QUIÉN LO APRUEBA?

Alcaldía

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

DEPARTAMENTO MUNICIPAL RESPONSABLE DE LA TRAMITACIÓN

Área económica - Tesorería y recaudación

OHARRAK

Aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie aplikatutako horien onuradunei ibilgailu bat baino gehiagorengatik aldi berean.

OBSERVACIONES

Las exenciones previstas no resultarán aplicables a las y los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

Hizki honetan xedatutakoaren ondoreetarako, hauek ulertuko dira urritasun duten pertsona gisa:

a. %33 eta %65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbaliotasun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

b. %65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

Ohiko galderak

Zergadunaren 2017ko egutegia

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

- Errolda jende aurrean: martxoaren 15etik 31ra
- Borondatezko ordainketa: apirilaren 1etik maiatzaren 31ra.
- Helbideratutakoak kontuan kargatzea: apirilaren 30ean.

1 Zer da Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga?

Izaera hori duten ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zerga da. Udalak kudeatzen du zerga hori, Trafiko Buruzagitzak emandako informazioan oinarrituta.

2 Nork ordaindu behar du?

Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean ibilgailuaren titular denak. Auto berria erosten den urtean matrikulatu aurretik ordaindu beharko da zerga. Urtean zehar egiten diren titulartasun edo helbide aldaketek ez dute eraginkortasunik hurrengo urtera arte. Erabilitako ibilgailu bat eskuratzean, urte horretako ordainagiria urtarrilaren 1ean ibilgailuaren titular denak ordainduko du.

3. Zein Udaletan ordaindu behar da?

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den helbideari dagokion Udalean.

4. Eta titularra zirkulazio baimenean agertzen dena ez den beste helbide batean bizi bada?

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den helbideari dagokion udalerrian ordaindu beharko du zerga.

5. Eta beste udalerrri batean erroldatzen bada?

Trafiko Buruzagitzan ez badu aldatzen zirkulazio baimenean agertzen den helbidea, beste udalerrri batean bizi bada ere, zirkulazio baimenean agertzen den helbideari dagokion udalerrian ordaindu beharko du zerga.

6. Eta ibilgailua saldu badu?

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

- a. Aquellas personas que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33% e inferior al 65% que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de discapacidad o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.
- b. Aquellas personas con un grado de discapacidad igual o superior al 65%.

A las personas incluidas en las letras a) y b) anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo III del mencionado Real Decreto 1971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.

Preguntas frecuentes

Calendario del/de la Contribuyente 2017

Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica

- Exposición Padrón: 15 al 31 de marzo
- Pago voluntario: 1 de abril al 31 de mayo.
- Cargo en cuenta domiciliados: 30 de abril.

1º ¿Qué es el Impuesto de vehículos de tracción mecánica?

Es un impuesto que grava la titularidad de los vehículos de esta naturaleza. El Ayuntamiento gestiona este impuesto según la información que le facilita la Jefatura de Tráfico.

2º ¿Quién lo debe pagar?

La persona titular del vehículo el 1 de enero de cada año. El año que adquiere un coche nuevo deberá pagar el impuesto antes de la matriculación. Las variaciones de titularidad, o de domicilio que se producen durante el año no tienen efectividad hasta el año siguiente. Cuando se adquiere un vehículo usado, el recibo de ese año lo pagará quien sea su titular en el 1 de enero.

3º ¿En qué Ayuntamiento lo debe pagar?

En aquel que corresponda al domicilio que consta en el permiso de circulación del vehículo.

4º ¿Y si la persona titular vive en un domicilio distinto del que figura en el permiso de circulación?

Deberá pagar el impuesto en el municipio del domicilio que figura en el permiso de circulación.

5º ¿Y si se empadrona en otro municipio?

Si no cambia en la Jefatura de Tráfico el domicilio que figura en el permiso de circulación, aunque figure en otro municipio, deberá pagar el impuesto en el municipio del domicilio que figure en el permiso de circulación.

6º ¿Y si ha vendido el vehículo?

Saldu arren Trafiko Buruzagitzan ez badu transferentzia izapidetu, ordainagiria titular berak jasotzen jarraituko du. Transferentzia Trafiko Buruzagitzan izapidetu badu, zergaren aldakea hurrengo urtean gertatuko da.

7. Eta autoa ez badago erabilgarri, bertan behera utzita badago edo autoak desegiteko leku batera eraman badu?

Urteko ordainagiria ordaintzen jarraitu beharko da Trafiko Buruzagitzan baja izapidetu arte. Hori egiten denean, Udalak urtea amaitu arte geratzen diren hilabete naturalei dagokien parte itzuliko du, bajaren hurrengo hilabetetik aurrera hasita. Helbideratutako ordainagirien kasuan, proportziozko parte ofizios itzuliko da ordainketarako dagoen kontu zenbaki berean. Helbideratuta ez dauden ordainagirien kasuan, Udala harremanetan jarriko da titularrekin, eta itzulketa egiteko kontu zenbakia eskatuko die.

8. Zeintzuk daude salbuetsita?

Beste batzuen artean (anbulantziak, ibilgailu ofizialak...), mugikortasun urria duten pertsonentzako ibilgailuak eta ezintasuna duten eta euren erabilera eskusiborako diren pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak ere salbuetsita daude.

9. Zeintzuk daude hobarrituta?

- Kuotaren -%100: ibilgailu historikoak.
- Kuotaren -%50: familia ugari izaera eta 4 seme-alaba edo gehiago dituen familia bateko kideren bat titular den ibilgailuak.
- Kuotaren -%95: ibilgailu elektrikoak.
- Kuotaren -%75: ibilgailu hibridoak, lau ekitalditan, matrikulatu direnetik.

10. Zelan eta non ordaintzen da?

Ahal izanez gero, ordainagiria edozein banku erakundetan helbideratuz. Herritarrak ez badu ordainketa helbideratu nahi, ordainagiria Udal Diruzaintzan (udaletxea) edo edozen banku bulegotan ordaindu ahal izango du, Udalak jakinaraziko duen borondatezko epearen barruan.

11. Zer gertatzen da kitapenaren jakinarazpenean adierazten diren epeetan ordaintzen ez bada?

Betearazpen bideko diru-bilketa prozesuari ekingo zaio, eta zordunaren ondarea bahitu ere egin ahal izango da, ordaindu gabeko ordainagiriak kobratu ahal izateko.

Informazio gehiago

Udala: Tfno. 94 630 00 02 (Errentak eta diru-bilketa)

diruzaintza@amorebieta.eus

www.amorebieta-etxano.eus

Si lo ha vendido, pero no ha tramitado en la Jefatura de Tráfico la transferencia, seguirá recibiendo el recibo la misma persona titular. Si tramita la transferencia en la Jefatura de Tráfico, el cambio en el impuesto se producirá el año siguiente.

7º ¿Y si el coche es inservible, lo ha abandonado o lo ha llevado al desguace?

Seguirá teniendo la obligación de realizar el pago del recibo anual hasta que tramite la baja en la Jefatura de Tráfico. Cuando lo haga, el Ayuntamiento le devolverá la parte correspondiente a los meses naturales que queden hasta el fin de año contados a partir del mes siguiente al de la baja. En el caso de recibos domiciliados se procede a la devolución de oficio de la parte proporcional en el mismo número de cuenta del que se dispone a los efectos del abono. Para recibos no domiciliados, el Ayuntamiento establecerá contacto con las personas titulares y les solicitará un número de cuenta donde proceder al reembolso.

8º ¿Quiénes están exentos?

Entre otros (ambulancias, vehículos oficiales...), están exentos los vehículos para personas de movilidad reducida y los vehículos matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo.

9º ¿Quiénes están bonificados?

- -100% de la cuota: los vehículos históricos.
- -50% de la cuota: vehículos cuya titularidad recaiga en algún miembro de una familia que tenga la condición de numerosa y 4 hijos/as o más.
- -95% de la cuota: vehículos eléctricos.
- -75% de la cuota: vehículos híbridos durante cuatro ejercicios desde su matriculación.

10º ¿Cómo y dónde se paga?

Preferentemente, domiciliando el recibo en cualquier entidad bancaria. Si el ciudadano o ciudadana no quiere domiciliar el pago, podrá satisfacer el recibo en la Tesorería Municipal (ayuntamiento) o en cualquier oficina bancaria, dentro del plazo voluntario que se anunciará por el Ayuntamiento.

11º ¿Qué pasa si no se paga en los plazos señalados en la notificación de la liquidación?

Se iniciará el proceso de recaudación en vía ejecutiva, pudiendo llegar a embargarse el patrimonio de la persona deudora y cobrar así los recibos impagados.

Más información

Ayuntamiento: Tfno. 94 630 00 02 (Rentas y recaudación)

diruzaintza@amorebieta.eus

www.amorebieta-etxano.eus